

Zero Zabor Uretan, azken txanpa itsasoaren alde

Pasaiara heldu aurreko azken portuan egitasmoaren balorazioa osatu dugu

MATER Ontzi Museo Ekoaktiboaren *Itsaso osasuntsu baten aldeko itsas zeharkaldia*, uztaila osoan zehar euskal kostaldeko hainbat portu bisitatu ostean, oinarri portua duen Pasaiara iristear dago. Kanpaina honek seigarren edizioa ospatzen du aurten, hausnarketa-prozesu parte-hartzaile bat sortzeko eta hondakinen arazoari irtenbideak bilatzeko, "Hondakinik onena, sortzen ez dena" lelopean.

Bilbon, Portugaleten, Bermeon eta Ondarroan (Bizkaia), eta Mutrikun, Hondarribian eta Getarian doako jarduerak eskaini dira: bisitak, tailerrak, itsas hondakinak arrantzatzeko nabigazioak, proiektzioak ontzian eta itsasoa eta bizia zaintzeko aldarrikapenak. Gaur heldu da Pasaiara eta bertan emango dio azken ukitua bere programazio bereziarekin.

MATER euskal portu hauetara iristearekin batera, hilabete batzuk lehenago herri horietan hondakinen prebentzioa eta sentsibilizazioa sustatzeko tokiko eragileekin hasitako lana amaitzen da. Sentsibilizazio-hitzaldien, erakusketen eta hainbat kolektibori zuzendutako proposamenen bidez, sinergiak sortu dira, tokian tokikotik arazoaren globalera eta konponbideetara jarduteko. Udalak, komunikabideak, gizarte-erakundeak eta tokiko dendak izan dira aurtengo protagonistak. Abentura honetan zehar, 2.500 pertsona baino gehiago izan dira gurekin bidelagun, hogeit hamar boluntario inguru eta 500 eragile sozial baino gehiago, enpresa txikiak, kultur elkarteak eta administrazio publikoak barne.

Parte-hartze honen haria komunitatean egindako erraldoi bihurtu diren bi pertsonai izan dira, ikusezina ikusarazteko sortuak: BIO, Bizitzaren Sarea, biziaren zaintzaren garrantzia irudikatzen duena eta kakorratzez egindako dozenaka algaz eta itsas animaliz egingo dagoena; eta ZABOR, Itsas Hondakinen Munstroa, gizarte gisa ditugun kontsumo ohitura suntsitzaileen emaitza dena eta euskal kostaldean bildutako itsas hondakinez osatua dagoena.

Hondakinen ikuspuntutik, ZERO ZABOR URETAN 2024ko itsas zeharkaldiko lehen 6 portuetan 5000 hondakin baino gehiago jaso eta aztertu dira egindako itsas arrantza saioetan, baita portuetako bilketetan herritar zientzia metodologiak erabilita ere. Hondakin mota hauetatik ugariena, lehen postuan, zigarrokinak ditugu; bigarren postuan, 2,5-50 cm arteko plastiko zati identifikaezinak; eta azkenik, hirugarren postuan, litxarrerri bilgarri plastikoak. Datu hauek bat datoz MATERek urtez jasotako datuekin. Plastikozko hondakinak dira ugariena gure kostaldean eta benetazko arazoa suposatzen dute bai ingurumenarentzat baita giza osasunarentzat ere. Hainbat jatorri dituzte hondakin hauek itsasoan eta itsasertzean agertzeko, baina denak gehiegizko hondakin sorreran dute ardatza, gizartearen arduragabekeria batik batik. Horregatik, urtez urte kanpaina honen funtsa hondakinen murrizketa eta sentsibilizazioa da, "hondakinik hoberena, sortzen ez dena" lelopean ohitura aldatzeko aldarrikatuz eta guztion eredugarritasunaz ekintzetara salto eginez.

Kanpaina honek hainbat administrazio publiko eta pribaturen babesa du, hala nola Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun Sailarena, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurune Naturaleko Departamentuarena eta SEO Birdlife Libera proiektuarena, Ecoembesekin lankidetzan.

Beste erakunde batzuek, hala nola Donostiako Itsaspeko Zinemaren Nazioarteko Zikloak (CIMASUB) edo Euskal Herriko Unibertsitatearen Plentziako Itsas Estazioak (PIE), kanpaina osoko jardueretan parte hartzen dute, baita aktiboki kanpaina beren udalerrietan garatzen laguntzen duten bertako erakunde ere.

MATERetik, Izaskun Suberbiola kanpainaren arduradunak adierazi duenez, *"inbasio hau gelditu behar dugu eta gure hondakinak murrizten hasi, eredu izateko eta ingurune osasuntsu, justu eta oparoa sortzeko"*.

Bestalde, Jasangarritasuneko diputatu José Ignacio Asensiok nabarmendu duenez, *"itsasoen kutsadura gure garaiko ingurumen arrazkarik premiazkoenetakoa bat da, hondakin plastikoen, isuri kimikoen eta itsas baliabideen gehiegizko ustiapenarekin, gure ozeanoen osasuna hondatuz. Jasangarritasun Departamentuak konpromisoa hartu du arazo horiei politika integralen eta ekintza zehatzen bidez heltzeko. Zero Zabor Uretan kanpaina bezalako ekimenak funtsezkoak dira hondakinen prebentzioa eta itsasoko kutsadurari buruzko sentsibilizazioa sustatzeko, herritarrak, tokiko gobernuek eta erakundeak praktika jasangarrien sustapenean inplikatzeko. Horrelako proiektuen bidez, giza jarduerak ozeanoetan duten eragina minimizatzea, itsas ekosistemak lehengoratzeko eta gizartearen hezteko lortu nahi dugu, gure itsasoak babesteak hurrengo belaunaldientzat duen garrantziaren inguruan"*.

Jarduerak Pasaian

Kanpaina arrakastatsu honi amaiera emateko, Pasaiaiko programazioak herriko jaiak aprobetxatuko ditu gure itsasoetan kutsadura plastikorik gabeko jaiak sustatuz. Horretarako, txupinazoarekin batera itsasoko erraldoiak ere egongo dira doako jarduerak hasiz, bihar, uztailak 25, itsas hondakinen irteera egongo da eta ostiralarte bisitak ontzira, tailerrak eta portuko dinamikak. Informazio gehiago: www.zerozaboruretan.eus

HARREMANETARAKO

Markel Elizalde | Komunikazio arduraduna

komunikazioa@mater.eus | 689023543

Izaskun Suberbiola | MATEReko zuzendaria eta ZERO ZABOR URETANeko arduraduna

zuzendaria@mater.eus | 626 738 415